

{ profila }

Ekai Txapartegi

UPV/ EHUKo Filosofia irakaslea

BRUNO LATOUR

Bere agurreko galdera: «Zergatik ez dugu ekiten gerran bagaude?»

Bruno Latour eraman du minbiziak, 75 urterekin. Zientziaren antropologo gisa ezaguna eta azken urteetan filosofo ekologista, bere lanetan gure arima modernoa arakatu du, Mendebaldeko bizimodua eusten duten egitura ideologikoak agerian jartzeko. Ekologia politikoaren alorrean, “Klima Araubide Berria” proposatu du eta “Gauzen parlamentua”, modu zibilizatuan erantzun nahi bazaio mehatxagarri bihurtu dugun planetari.

ARDOA, NATURALA ALA KULTURALA?

Frantziako ardozale familia aberatsekoa, borgoinarra, 1947ko uzta, Latourren pentsamendua ulertzeko lagungarri gerta daiteke bere jatorritik abiatzea. Zer da ardoa? Pentsa liteke gertakari natural gisa, bere konposizio kimikoan, edo bestela gertakari sozial gisa, gustu eta ohiturekin nahasian, baina arazoak ditugu ardoa pentsatzeko bi modu horiek bateratuta, aurrez onartua dugulako kimikan ez dagoela jendarterik, ez ohitura/gustuetan naturarik. Naturala ala kulturala den, bi ikuspegien artean bata ala bestea aukeratu beharrak ez digu ikusten uzten naturaren eta kulturaren arteko nahasketak eta elkar-dependentsia sistema osoa. Ardozale gisa, ordea, Latourri bistakoa zaio sorkuntza kimikoa eta gustuarena batera egin direla, elkarri jositak daudela, banaezinak direla natura eta kultura. Horrela iristen da ondorio-ra, Natura eta Kultura *moderniak* emandako marko ideologikoak direla, kategoria naturalak zein sozialak purifikatzeko mekanismoak, ezkutatzeko elkar-sorkuntza eta haien azpian haiek eusten eta egonkortzen dituzten aliantza sareak.

Azpialdeak ezkutatzeko horrek balio du errealitate gordinak naturalizatzeko, onargarriago egiteko. Gazte zela oharatu zen horretaz, Afrikako Boli Kostako


Errepublikara bidaiatu zuenean, antropologo gisa. Hango fabrikak aztertu zituen, jabe frantsesek langile afrikarrak administratzeko modu “neutralek” nola naturalizatzen eta arrazionalizatzen zituzten haien arteko botere asimetriak eta abusuak. Han zebilela otu zitzaion Europako jendartei ere antropologo moduan begiratzea, errealitate onartezin baina natural-natural onartuen sorkuntza prozesu horiek Mendebaldean nola funtzionatzen duten agerian jartzeko.

Errealitatea nola eraikitzen dugun izan da Latourren aztergai nagusia. Horregatik, berehala zientzia modernoa- ren funtzionamenduari jarri zion arreta. Kaliforniako laborategietara sartu zen, antropologo moduan haien jardunak jasotzera. Garai hartakoak dira, “Laborategi bizitza” (1979) edo “Zientzia ekintzan” (1983). Azterketa antropologikoak izan arren, zientziaren gaineko lehen ikerketa soziologikoak ekarri zituen, “programa gogorra” (strong program) bezala ezagutuak. Programa gogorraren ideia nagusia da itxuraz zientziaz kanpo dauden interes, ideologia eta bestelako indarrek zeresan erabakigarria dutela zientziak egiten dituen baieztapenetan.

Zientzialariek gertakariak aurkitzen dituzten mitoaren aurrean, zientzialariek errealitatea konposatzeko hartzen dituzten lanak jarri zituen agerian, eta errealitatea erditzeko zientzialariek gain zenbat kanpoko ‘agentek’ ere parte hartzen duten. Zientziagintza ez da aurkikuntza; ez da guk topatu zain hortxe emanda dagoen errealitatearekin tupust egitea; zientziagintza errealitatearen konposizio lan korapilatsua da.

AKTORE SAREA

Lan goiztiar horiek jarriko diote oinarria bere “Aktore-Sare Teoria” garatzeko (Actor-Network Theory edo ANT). Garai horretan garatuko du sarearen teoria



Bruno Latour filosofo, antropologo eta soziologoa 2021eko otsailean. Joel SAGET | AFP

metafisikoa, non gauzak ere ekiteko gai diren. Gauzak gu bezala dira, munduan eragiten duten agente edo subjektu, eta interesak dituzte, guk bezala. Gauzak aktanteak dira, bere terminologian. Gure sen moderno kartesiarraren aurkakoa da metafisika hori, aktanteena. Oroitu Descartesek gizakia eta mundua bereizi zituela, *res cogitans* eta *res extensa*, eta gizakiari bakarrik aitortu mundua errepresentatzeko gaitasuna, zein erabakiak hartzeko askatasuna. Descartesentzat gizakia bakarrik da aktore, eragile. Alabaina, Latourrek gizakia sarean kokatzen du, eta hor, aktanteen sare horretan, gizakia ez da



hain aktore, ez da hain aske, ez hain eragile, eta inportanteena, ez aktore bakar.

Objektibitatea konstruitzeko aliantza sistema da zientzia, eta gero bere burua legitimatzeko aliantza sare hori ezkutatzen digu, emandako negoziazio eta hartutako akordioak ezkutatuta. Ezkutuko azpiegitura hori agerian jartzeagatik, ohikoa da Latour ‘konstruktibista’ gisa ezaugarritzea.

Hortik tiraka, baita ere ohikoa da antierrealista gisa ezaugarritzea. Filosofia fakultatera bazatoz, berandu baino lehen norbaitek Latourren galdera egin-go dizu: Tuberkulosiak hil zuen Ram-

ses II.a? Mikrobioak existitzen ziren Pasteurren aurretik? Itxuraz Latourrek bi galderei ezezko erantzuna eman zien, izan ere, errealitatea eraiki behar bada, izango da aurretik ez zelako existitzen. Alabaina, kontu handiagoz irakurrita Latourrek ez ditu gertakariak ukatzen, ez ditu tuberkulosia edo mikrobioak ukatzen, soilik adierazten du gertakariak bakarka ez dutela indarrik, gertakari bakoitzak aliantza sistema bat duela atzean hura eusten, hura defendatzeko lanak hartzen. Gertakari naturalen atzean ere aliantza sozialak behar direla, bestela ez direlako ‘existitzen’. Esaten duena da errealitateak, izateko, partekatua behar duela, eta jendarteak zerbait partekatzea lortzea ez dela batere zeregin erraza, ez batere espontaneo. Agerian jarri duena ez da errealitate gabezia, baizik eta moderniak errealitate konpartitura iristeko sortu dituen bi mekanismoak, zientzia eta politika, biek euren burua desitxuratu behar izan dutela, biek euren burua idealizatu, euren azpiko aliantzak ezkutatu, hain zuzen eraginkortasuna irabazteko. Gizaki modernoak bere burua edertzeko, edo besteen gainetik jartzeko, bere buruari kontatzen dizkion ipuinak seinalatu ditu.

INOIZ EZ GARA MODERNOAK IZAN

“Inoiz ez gara modernoak izan” (1991) liburuan arakatzen du Mendebalde kulturaleko egitura ideologiko hori. Zientziak gertakariak ordezkatu ditu, mundua, errealitatea; eta politikak balioak ordezkatu ditu, interesak, gizataldeak. Modernia bereizketa ideologiko horretan oinarritzen da, txanpon bera- ren bi aldeak balira bezala: jakintza eta ekintza, mundua eta balioak, deskripzioa eta preskripzioa, zientzia eta politika, Natura eta Kultura, objektuak eta subjektuak, beharra eta askatasuna. Moderniak purifikatu egin ditu errealtate naturalak eta errealitate sozialak, gertakari guztiak alde batean edo beste- tean kokatzeko eta, bide batez, bere

gailentasun zientifiko eta politikoa aldarrikatzeko. Zientzia ez-politizatu eta politika ez-zientifiko (demokratikoa), bien arteko ebaki horretan eusten da, Latourren iritziz, Mendebalde ilustratuaren gailentasun diskurtsibo eta ideologikoa.

LARRIALDI KLIMATIKOA

XXI. mendea iristearekin batera, ordea, garaia aldatu da. Latour krisi klimatikoaren garrantzi erabatekoaz ohartuko da. “Historiaren amaiera” markoa erori eta “Planeta bizigarriaren amaiera” markora pasatu gara.

Planeta bizigarriaren bukaerak dena aldatzen du. Munduaren ideia bera, esaterako. Mundua ez da Galileorena, elkarrekin zerikusik ez duten objektue- na; mundua elkar behar duten bizi sistemen muntaketa konplexua da (Gaia hipotesia) eta berotze globalak muntaketa- ren errealitatea eta ahultasuna jarri dizkigu agerian.

XX. mendeko erronkek txiki dirudite datorkigunarekin alderatuta. Egoera horretan ekintzara deitzen du Latourrek eta, lehen aldiz, zientzia erakunde- dea babesteko eskatzen du. Kalifornian eman zuen hitzaldi batean entzun nion: «Bizitza erdia pasa dut zientzia ez dela hain objektiboa esaten. Beste erdia daramat politika ez dela hain subjektiboa erakusten». Zientziari dagokio alar- ma ozen jotzea eta gizakiak mehatxatzen dituen izate eta bizi sistema guztien ordezkaritza politikoa hartzea.

Garrantzitsua da Latourren defentsa hori, zientziarena, artikulatu autokritiko batean oinarritzen duelako, zintzotasunez, nola petrolioaren interes lobbyek bere teoria erabili izan duten alda- keta klimatikoa ukatzeko (“Why has critique run out of steam?”, 2002).

Azken aldi honetakoak dira, besteak beste, “Naturaren politikak” (2006) eta, garrantzitsuena, “Gaia aurrez aurre” (Facing Gaia, 2016). Elkarriketa batean azalduko zuenez, hegazkinean omen zihoan, goitik behera izotz plaken atze-

rakadari begira, ohartu zenean bera ez zela ikusle soila, hegazkina askatzen ari zen CO₂ak eragiten zuelako makro- gertakari hori. Ideia hori da Gaia hipotesiaren muina, James Lovelock kimi- kariak 1965ean aurreratu zuena: bizidunak ez gara ingurumenean bizi, ingurumena egiten bizi gara. Hain eder zaigun paisaia bizigarria (ozeanoen konposizio kimikoa, atmosferarena, lur- rarena...) produktua da, nahigabekoa, esperogabea, organismo guztien, ani- malien, zuhaitzen, bakterio guztien, bi- zi ekintzena. Bizidunek eraiki dute pla- netaren azaleko geruza bizigarria, bizitzak ekarri dituelako beretzat be- har dituen bizi baldintzak.

ZERGATIK EZ DUGU EKITEN GERRAN BAGAUDE?

Latour gazteak zientzian eta politikan desestali zituen ezkutuko sareak, muntaketak, indarrak eta elkar-mendekota- sunak Gaia hipotesiak planetan koka- tzen ditu. Metafisika bera da, sareena. Ez hori bakarrik, Latourrek behin eta berriz salatutako ideologia modernoa, ebaki hori bera da, alde batetik, larrialdi kli- matikoa ekarri duen bizimoduaren arra- zoitze modua eusten duena eta, beste- tik, beso-gurutzatuta neurririk hartu gabe jarraitzearen esplikazio kulturala. Larrialdi klimatiko eta biodibertsitate- koari ez zaio erantzun politiko egokirik emango, Natura/Politika bien arteko ba- naketak jarraitzen duen artean.

Larrialdi klimatikoa aro moderno- ren amets-sukarra da, Latourren iritziz, eta etorkizunaren kontzientzia hartze- ak gerra egoeran jartzen gaitu, lurtar- ren eta gizaki modernoaren arteko ge- rran. Horregatik, lurtarren arteko interkonexio delikatu eta hauskorrei arreta berritzeko eskaera eginaz agurtu gaitu Latourrek, lurrera itzultzeko es- katuz (“Down to Earth”, 2018), muzin ez egiteko “mundu komuna” mantentze- ko erantzukizunari. Errepublikar zaha- rraren azken deia izan da, «autokritika egiten dakien herria gai delako bere burua politikoki norabidetzeko».